

GRISEZ BUSTITAKO EGUNAK **ERASO!**

Zarautzen sortutako taldea eta barne aldaketarik gabea 1996. urtean eskenatokietan kontzertuak emanaz hasi zirenetik dirauen taldea da ERASO!. Amaieur Cajaraville baxua, Nestor Urdanpilleta gitarra, Iñigo Beitia bateria eta Sergio Ruiz gitarra eta ahotsak.

2003. urtea. Esku artean duguna ERASO!ren 3. diskoa da. Orain arteko lanik onena dudarik gabe. Lehenengo diskoarekin, "Erantzunik gabe" (Mil a gritos, 99') hain zuzen, hitz egiteko asko eman zuten. Bigarren lanarekin "Oraina eta geroa" (Mil a gritos 01) aurrekoarekin lortutako arrakasta berretsi zuten eta hirugarren honekin asmo berberetzat jotzen. Metalaren plazak itxaroten zuten lanik garrantzitsuen talde berritzaile honen eskutik. "Grisez bustitako egunak" (Metak'03) diskoarekin bete-betean asmatzen du taldeak.

Kalitatezko rock-a zer den gogora ekartzen duen lan horietakoa. Sergioren ahots eder eta urratua, gitarren doinu bizien gainetik doaz, konponketa paregabe eta lelo itsaskorrez josita. Musikaren heldutasunean aurrera doan diskoa aurkezten digu Eraso! taldeak konparazio batetarako "Gertaerak", "Ispilua apurtu da", "Altzairuzko taupadak" kantuek. Baita gitarra riff gogorak, "Sistemaren esklabu", "Otsoak otsoari laztan" kantuetan eta soinu bizi eta astunak "Gizartearen loak" eta "Gezia" abestietan. Lasaiagoak diren kantuek ere badira; "Ze huts garen" eta "Alargun beltzaren besarkada" adibidez. Eta "Ihes" bezalako abesti rockagoa eta gordinagoa. Hamaika kantuz osatutako diskoa dugu hauxe, metal ilunean barnean irudikatzen duen rock gogorrarekin muga-mugan dagoena. Soinu freskoa, berria, anitza, zirrarragarria eta kolpatuko zaituena. Mikel Kazalisek hartzen du bere gain ekoizpena, taldearen onena atereaz, berak ere egin ditu grabaketak Zarauzko Fidelenean eta nahasketak Haritz Harreguyekin batera Andoingo Garaten.

Eraso! zuzeneko taldea izan da batik bat oraino, urteko berrogei bat kontzertu izaten oi dituzte eta hainbat bira ere egin izan dute, besteak beste Napalm Death eta Slayer taldeekin Espainian eta hainbatetan talde garrantzitsuekin izan dira agertoki berean Machine Head, Sepultura.

Nolakoa da egun ERASO!ren soinua. Hasieran, askok Helmet eta Machine Head-en arteko nahasketa izendatzeraino eraman zuten, oldarkortasuna eta sentiberatasuna mantentzen dute, baina gaur egun beren izaera landuagoa eta helduagoa da, beti ERASO!. izan badira ere, orain inoiz baino gehiago. Talde berriei metalaren plazan ate asko ireki dion taldea da Eraso!.

Oso intentsua den lan baten aurrean gaude, eta bertan aurki dezakegu Iker Treviñok "Gertaerak" kantuekin egin duen bideoklipa. Taldeak azaletik, tristura, amorrua, eta diskoan gailentzen diren beste sentimenduak azaldu nahi izan ditu.



Ref: M.036CD

Azaleko informazioa:

Euskal Herriko rock eta metal musika eszenan itzal handiko talde honen hirugarren diskoa, lehena Metak diskoetxean. Ezagun zaien gitarren indarrari muzin egin gabe honakoa taldearen diskorik "rockeroena" izan daiteke. Mikel Cazalisek (Anestesia, Negu Gorriak, Kuraia) grabatua eta ekoiztua Haritz Harreguyk nahastu du Garaten. Emaizta: sendotasuna eta indarra kantuetara eramana, amorrua melodia itsaskorrekin baita abiadura une geldoekin nahastuz lortua. Finean, rock, metal, thrash....

Iraupena: 44:57

Kantu kopurua: 11 + bideoklipa

Kantuen izenburuak:

1. Gertaerak 4.29
2. Ispilua apurtu da 4.03
3. Gizartearen loak 4.31
4. Otsoak otsoari laztan 3.30
5. Ze huts garen 5.04
6. Sistemaren esklabu 2.42
7. Ihes 2.33
8. Altzairuzko taupadak 4.40
9. Gezia 4.53
10. Alargun beltzaren besarkada 5.55
11. Grisez bustitako egunak 2.37

Partaideak:

Sergio Ruiz gitarra eta ahotsak
Amaieur Cajaraville baxua
Nestor Urdanpilleta gitarra
Iñigo Beitia bateria

Grabaketa tokia:

Fidelenea-Zarautz

Grabaketa:

Mikel Cazalis

Nahasketak:

Mikel Cazalis eta Haritz Harreguy

Promo material eskuragarria:

- kartelak
- argazkiak
- postalak
- bideoklipa

Informazio zabalagoa:

www.musikametak.com
www.erasomania.com

Argitaratze data:

2003/10/30

